

INBESTIDURA-HITZALDIA

2023 Abuztua

Parlamentuko Lehendakaria, agintariak, parlamentari jaun-andreak, bilkura honetara gonbidatuak, egun on guztioi.

Jaun-andreok.

Gaur Ganbera honen aurrean Nafarroako Lehendakari bezala kargu hartzeko nire hautagaitza aurkezten dut.

Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta Zurekin Nafarroa alderdiek izenpetutako gobernuak akordio programa batekin egiten dut. Eskerrik asko, lan neketsu eta zailagatik, baina esan ohi den bezala, ongi dago ongi amaitzen dena.

Akordio hau, joan den maiatzaren 23ko hauteskundeetan alderdi aurrerakoekin ordezkaturik legokeen gehiengo parlamentario bat babestu zuten herritarrekiko konpromiso batetik abiatzen da. Erabaki horrekin, eta alderdi aurrerakoi bozkatuenaren hautagaia izanik, komunitate honetarako gobernu aurrerakoi berri bat eraikitzearen lan egiteko konpromisoa hartu nuen. Eta halaber inbestidura prozesu batera aurkezteko hitza eman nuen; konpromiso biak gaur betetzen ditut Ganbera honetara bai akordioa eta bai Lehendakaritzarako nire hautagaitza ekarriz.

Beraz, emandako hitza bete dut, herritarrek hautestontzietan adierazi zuten hitza nire gain hartuz.

Nire programa-ildoak eta akordio-ardatzak azaltzeari ekin aurretik, egungo testuinguru politikoan bereziki aipagarria iruditzen zaidan zerbait aipatu nahi nuke. Larrialdi demokratikoaren testuingurua iruditzen zait, eskuineko alderdien eskutik datorren inboluzio mehatxuagatik, izan ere, jadanik eskubideak murriztuz eta genero-indarkeriaren, klima-aldaketaren eta aniztasunaren negazionismoa politika publikoetara eramaten dabilta, adibide gutxi batzuk aipatzearen.

Herritarrak, ospatu ditugun azken hauteskunde-prozesuetan, politikaren aurretik doan mezu garbi bat aldarrikatzen ari dira, ordezkaritza instituzionala dugun alderdiok kontuan hartu behar genukeena.

Herritarren gehiengoak bizikidetza bozkatu du. Pluraltasunarekiko eta aniztasunarekiko errespetua eta integrazioa bozkatu du. Aurrera egitea bozkatu du. Eskubideei bai eta atzerapausoei ez esanez bozkatu du. Konstituzioak kontuan hartzen dituen autonomien esparruan aurrera egiten duen Espainiaren baitan, Nafarroa Foral baten alde bozkatu du.

Ko-gobernantza eredu eraginkorren eskutik Estatuko eredu deszentralizatu batean aurrera egitea herritarrek jakitera eman duten behar bat da, bizikidetza komun baterako lurralde mailako tentsiorik edo mehatxurik gabe herrialde proiektu honek aurrera jarraitu dezan.

Jaun-andreok.

Uler dezagun pluraltasuna aukera modura eta ez arazo bat bailitzan. Uler dezagun pluraltasuna ez begirada baztertzaile batetik, pertsona eta gizarte bezala hobetu eta aberasteko aukera bezala baizik.

Nafarroa Foral honetan, gure auto-gobernua ulertu behar da herritarren, oparotasunaren, hurbiltasunetik eta ezagutzatik, eraginkortasunetik eginiko gure kudeaketa ahalmenen zerbitzura dagoen baliabide modura, eta hain zuzen era horretan, eratu nahi dudan gobernuak lanean jarraituko du hori defendatze aldera, elkarrizketa eta leialtasun instituzionalak tarteko izanik.

Nafarroa integratzaile bat, inoren aurka edo polarizaziotik eraikiko ez dena. Elkarren Mesederako eta adostasun politiko eta soziala babesteko baizik.

Aurreko gobernuak, zeinen lehendakaria izateko ohorea izan dudan, jada frogatu zuen gutxiengo parlamentarioan gobernatu ahal dela, elkarrizketaren tresna demokratiko ahaltsu hori zentzuzko moduan erabiltzen bada, zentraltasunetik eta interes orokorrean pentsatuz.

Hitzaren zeregina eta balioa erreibindikatzen ditut. Ematen duguna, ematen digutena, elkar ulertzea ahalbidetzen diguna, bat ez etortzea eta eztabaidatzea ahalbidetzen diguna, pertsona hobeak eta herritarren ordezkari hobeak bihurtzen gaituena. Inork ez gaitzala isilarazi. Inork ez dezala adierazpen askea ukatu. Inork ez diezaiola uko egin elkar ulertzeko edo ituna lortzeko hitzari, eta zergatik ez, are , desadostasuna kudeatzeko erabiliari.

Beraz, politika erabilgarria bultzatu nahi dutenen elkarrizketarako jarrera eskertu nahi dut. Nahi nuke gero eta gehiago izatea. Zeren garbi dago akordioa lortzeko borondatea beharrezkoa dela. Beraz, joan den legegintzaldian eta hasiberria den honetan Nafarroaren aurrerapena eta garapena bultzatu nahi dutela frogatzen ari direnei nire esker ona soilik nahi diet azaldu.

Ziur nago zerbitzu publiko bat bezala ulertzen dudan politikaren zeregin zintzo honetarako hautatuak izan garenon aldetik jaun-andre nafartarrek nahi eta espero dutena hori dela.

Beraz, Ganbera hau elkarrizketa, akordio eta bizikidetzaren eredurik onena izatea eskatzen dut. Erronkak akordiotik ebazten jarraitu ahal izateko moduko legegintzaldi bat izatea. Eta Ganbera hau hitz eraikitzailearen etxea izatea. Zeren adeitasunetik eztabaidatu ahal da. Enpatiarekin, lerro zehatz batzuk gurutzatu gabe.

Hala egingo dugulakoan nago, horrela halaber bizikidetzaz bultzatzen dugulako eta herritarrek jasotzen dutena hemen gertatzen dena delako. Izan gaitezen ba, pluraltasunak bizikidetzarako eta eztabaidarako erabiltzen dituen normaltasunaren eta errespetuaren eredurik onena.

Eta nola ez, halaber botere bananduekiko errespetutik, demokraziaren oinarria izanik, gaur nire borondate osoa erakusten dut gobernu bezala kolaboratzeko eta jarduteko, erakunde guztion artean gure lurralderako aukerez eta itxaropenez beteriko etorkizun baten aldeko ekarpenak egin ditzagun.

Jaun-andreok.

Lortu dugun akordio pragmatikoaren arabera, gure helburua da Foru Komunitateko orainaldiko eta etorkizuneko eskariei erantzutea.

Alde batetik, erabakitasunez eta gardentasunez ekiten diogu ekonomia eta gizarte politikei, horien arteko orekaren ikuspegi bati helduz, ontzi komunikatuak, jasangarriak izan daitezen eta aukeren berdintasuna hala nola herritarren ongizatea berma dezaten.

Ekonomia nafartarra une on batean dago. Ezjakintasunaren gaintik, nazioarteko egoera konplexuaz, beherantz joan arren tentsioak eragiten jarraitzen duen inflazioaz haratago, ehuneko 2aren gaintik hazten eta enplegua sortzen jarraitzen dugu. Hain zuzen, enpleguarekin lotutako politikak gorai patzen jarraituko dugu, enplegagarritasunerako zailtasun gehien dituzten kolektiboak, esaterako emakumeak, gazteak eta pertsona migratzaileak babestuz gehienbat.

Egia da Nafarroako langabeziaren datuetan, 2008. urtetik, 30.000 pertsona langabetu baino gutxiago daudela. Eta Gizarte Segurantzari afiliatuta dauden 300.000 pertsonen barrera gainditu dugula, gainera lan-erreformari esker enpleguaren kalitatea nabarmenki hobetzera helduz.

Baina beti dago zeregin gehiago. Eta inertzia ez da gure bidea izango. Bai ordea auto-exijentzia. Horregatik, kalitatezko enplegua izango da gure lehentasunetako bat, eta hala islatzen dugu akordioan.

Beste lehentasun bat **etxebizitza duinerako aukera** izango da. Eskubide bezala ulertutako etxebizitza. Inoiz ezin da izan emantzipaziorako eta bizi-proiektu bat eraikitzeko barrera edo eragozpen bat. Horregatik, foru nahiz estatu legeen arabeko esparruak aintzat hartuz, etxebizitza duin bat eskuratzea bultzatzen duten neurriak sakondu eta aktiba ditzagun.

Nola ez, gizarte kohesioko eta desberdintasunaren aurkako borrokako politiketan komunitate erreferente bat izaten jarraitu nahi dugu. Espainiako bizi-kalitate goreneko komunitatea izan arren, desberdintasuna oraindik agerikoa da, eta ondorioz, konponbidea behar duen erronka bat izaten dirau. Beraz, jada eskura ditugun mekanismoak hobetu ditzagun eta baloratu ditzagun beste berri batzuk, desberdintasuna murrizteko eta pobreziaren hala nola lurralde desorekaren aurka borrokatzeko laguntzen duten politika guztiak artikulatzeko.

Jarrai dezagun herritarren eskubideak sakontzen, baita gardentasunarekin, kontuak ematearekin eta kontrol instituzionalarekin lotura duen guztia ere. Hala, zutabe bi horiekin, eskubideak eta gardentasuna, kalitate demokratikoa irabaziko dugu eta gure gizartea nahiz gure erakundeak sendotuko ditugu.

Eta herritarren eskubideak gizarte justiziaren kontu bat dira. Badira jadanik murrizten ari direnak edo horretarako bidean daudenak. Demokraziarako bide arriskutsua eta bizikidetzaren aurkakoa iruditzen zaigu. Horregatik, zuzenduko dudana gobernua, Ganbera honen konfiantza lortzen badut, bikaina izango da ez bakarrik jadanik gureganatutako eskubideen zaintza eta errespetuarekiko. Proaktiboa izango da aintzatespenaren ildo horri jarraitzeko eta demokraziarako funtsezko printzipio baten balioa azpimarratzeko.

Emakumeak, desgaitasuna duten pertsonak, haurrak, LGTBI+ pertsonak, pertsona migratzaileak, etab. Gure lurraldean bizi diren pertsona guztiek, bere alboan pertsona ororen eskubideekin konprometitutako gobernu sentibera bat izango dutenaren lasaitasun eta bermearekin konta dezakete.

Bizikidetzaz ari naiz etengabe, zeren beti esaten dudana bezala, bizikidetzarik gabe ez dago aurrerapenik. Zalantzarik gabe oinarritzko gai bat da, bestelako ardura politikoen gainetik dagoena. Horregatik, bakearen eta bizikidetzaren balioak beti ageriko dira politika publikoen gure ikusmoldearen eta erantzukizun publikoaren betekizunaren gunerik gorenean.

Ildo horretatik, berriz diot, akordio hau eratu dugun guztiontzat, pluraltasuna, bere zentzu guztietan, gizarte, lurralde, politika, nortasun, linguistika, sexu edo beste edonolako arlotakoa, aukera bihurtu behar dugun balio bat da, Nafarroa are hobetoago bat eraikitzeko zeinetan guztiok osagarriak eta proiektu komun bateko atalak izango garen.

Izango gara, Ganberak baimentzen banau, gobernu feminista bat, emakumeak ahaldunduko dituen, aniztasun afektibo sexuala eta LGTBI+ eskubideak errespetatzen dituen, diskriminazio ezaren alde eta indarkeria matxisten aurka lan egingo duena.

Gainera, zerbitzu publikoek aukeren berdintasuna bermatzen dutela sinesten duen gobernu bat izango gara. Horregatik, sendoak, modernoak eta baliabideekin hornituak nahi ditugu.

Eta, aurrerago aipatuko dudan arren, zeregin hori nabarmendu egingo dugu, zehazki osasun arloan, eta bereziki lehen arretan. Zeinek aldi berri bati ekin behar dion, izan ere, egungo eta etorkizuneko erronkak eta errealitateak ausardiaz gainditu behar ditugu, egiteke edo amaitzeke ditugun eraldaketak ahaztu gabe. Adibidetzat hartzen ditut, lehen arretako berrikuntza teknologikoa edo berrikuntza teknologikoa edo zerbitzuen hedapena, hala nola osasun mentaleko arreta.

Gure konpromisoa da, ondorioz, kalitatezko eta baliabideekin hornitutako zerbitzu publiko batzuekin kontatzea; horretarako diru-bilketa, hau da, fiskalitate justu eta neurriko bat behar dugu. Lurralde kohesiorako zutabeak diren zerbitzu batzuk. Beraz, azpiegiturekin eta enpleguarekin batera, komunitatea egituratzeko eta despopulazioaren aurka borrokatzeko baliabide ahaltsoak dira.

Ospetsua da berrikuntza, digitalizazioa, adimen artifiziala eta 4.0 industria bultzatu dituen gure ibilbidea. Ekoizpen ereduak aldatzen ari da, eta eraldaketak heziketarekin eta prestakuntzarekin osatu behar ditugu, horiek eskuragarriak bihurtuz eta gizarte osora iristearren kapitalizatu daitezten lortuz.

Aurkakoak jadanik prestakuntzarekin gainditzen ari garen arrakala digital eta teknologikoaren arrisku bati bidea ematen dio, baina gizarte konektatuak inor deskonektatuta utzi ez dezan lanean jarraitu behar dugu.

Horregatik, lehenengo urratsa konektibitatea herritar guztiengana helaraztea zen, eta herritar guztiengana heltzeko zorian gaude. Baina hurrengo urratsa da konektibitate hori aukera bat eta hobekuntza bat izatea eta ez arazo bat, gehienbat adineko pertsonen kasuan.

Hori guztia, arlo publikoa estali behar duen lidergoaren eta palanka eraldatzailearen zereginarekiko gure konpromisoari helduz. Arrakastatsua izaten ari den lankidetza publiko-pribatuaren filosofia batetik, zeinetan sakontzen jarraitu behar dugun. Lankidetza hori gizarte osoaren mesederako bertutezko zirkulu bat bihur dadin. Baina berriz diot, arlo publikoa palanka sustatzaile bezala hartuz, funtsezkoak iruditzen zaizkigun ausardia eta lidergoa oinarritzat dituela.

Bestalde, berretsi nahi nuke akordio hau auto-gobernuaren aurrerapenarekin konprometitzen dela. Eta adostasunak bilatu nahi ditugu LORAFNA legea eguneratzeko eta konpetentzien gaineko ahalmenak XXI. mendeko erronkekin egokitu ahal izateko. Hain zuzen bere onarpenaren urtemuga ospatzen dugun egun hauetan.

Eta joan den legealdian jadanik hiru konpetentzia lortu bagenituen, urrats historiko bat, orain aurrerapausoak eman nahi dugu Nafarroak konpetentzien gaineko bere ahalmena garatzen jarrai dezan, legearen irizpideak jarraituz.

Hori guztia bere aniztasuna, bere kultura eta ondarea eta nola ez, bere hizkuntza propioak errebindikatzen dituen Nafarroa batean egingo dugu. Horregatik, errespeturik handiena erakutsi nahi diogu euskarari, legearen testuinguruan, errealitate soziolinguistikoaren logikatik abiatuta.

Hori da esparrua zeinetan kokatu nahi ditugun politika publikoen lehentasunak eta gure programa akordioaren ardatza.

Jarraian, ildo horien baitan dauden hainbat proposamen eta neurri zehatz aipatzeari ekingo diot, Nafarroa berritzaile, digital, jasangarri, kohesionatu eta berdinzale bat defendatuko duen gobernu bati dagozkionak.

Esan bezala, **osasun publikoa** izango da legegintzaldi honetako gai nuklearra.

Ez dugu ahaztu behar aurrekoan gizarterako egoera traumatiko bat bizi izan genuela, sistemarako inpaktu itzela suposatuta zuena. COVID19aren pandemia. Pandemia horrek gure osasun sistema publikoan jadanik agerikoak ziren eta atzetik zetozen ahulguneak are gehiago bistaratu zituen eta sistema hori berriro bultzatzen jarduteko premia gogorarazi digu, gainera modernizazioaren eta XXI. mendearekiko egokitzapenaren ikuspegitik .

Horregatik, eta aipatzeke geratu den gaietako bat da, osasunaren foru lege berri bat onartu behar dugu, ganbera honek horren harira batzordean jadanik jasotako irizpideetan oinarritua.

- ✓ Sistema unibertsal, bidezko, solidario eta berdinzale bat bere prestazioen eskuragarritasunean
- ✓ Itxaron-zerrenden konponbidea
- ✓ Zerbitzuen zentzuzko erabilera
- ✓ Arreta integral eta sozio-sanitarioa
- ✓ Lehen arretaren erreforma eta finkapena
- ✓ Pertsonan oinarritutako ospitaleko antolamendua
- ✓ Emaitzetan oinarritutako ebaluaketa
- ✓ Osasun mentalarena bezalako erronken konponbidea, bereziki haur-gazteen esparruan
- ✓ Eta ikerketa nahiz medikuntza pertsonalizatuaren bultzada

Etxebizitza arloan, zein gizarte konpromiso sakon batetik ulertzen dugun, 2028 arteko etxebizitza plana ezartzen jarraituko dugu, kontziente izanik alokairu sozialari, birgaikuntzari abiadura eman behar diegula, landa-eremuetan ere etxebizitza-parke eskuragarri batekin kontatuz, pertsonentzat eragozpen bat izango ez diren alokairu prezio batzuk bermatzeaz gainera.

Beharrezkoa izateagatik ekarri izan dudan beste gai bat, industriaren egungo eta etorkizuneko beharrak bete-betean estaltzea ahalbidetuko digun **berrindustrializazio plan** bat elaboratzearena da.

Industria gure BPGren zutabe bat da, gure indargune ekonomikoetako bat, eta inbertsio izugarriak hala nola langileentzat prestakuntza oso espezializatua eta berezia eskatzen dituen garrantzi izugarriko prozesu eraldatzaile baten eraginpean dago. Ildo horretatik, gure industria-ehunaren lehiakortasuna

hobetzea ahalbidetuko digun plan bat bultzatzekotan gabiltza, horrela ekoizpen jasangarriago baterantz aurrera eginez, zeinek bere balioa agerian jartzeko eta gure industriak behar dituen profilen eskariak estaliko dituen kalitatezko enplegua eta prestakuntza eskaintza sortzeko bidea emanaz.

Gogora ekarri nahi dut amaitu berria den legegintzaldi honetan foru interesa deklaratu dugula eta proiektuak iragarri ditugula 2.100 milioitik gorako inbertsio batekin eta 2.170 lanpostu baino gehiagoren sorrerarako aurreikuspenarekin.

Nafarroan inbertitzeko interesa agerian jartzen duten eta enpleguaren sorrera garrantzitsua inplikatzen duten datu erabakigarriak. Berri onak, zeren industriaren ezarpena eta garapena, zalantzarik gabe, gure zereginetako bat da, Nafarroa indartzea inplikatzen duelako.

Gainera, Next Generation funts europarrak zeregin oso garrantzitsua betetzen ari dira eredu horri eta eraldaketa horri ekarpena egiteko orduan. Hor daude ibilgailu elektrikorako prozesu eraldatzaileak edo nekazaritzako elikagaien sektoreko eraldaketa digital eta jasangarria, edo hidrogeno berdea bezalako teknologiak, arlo energetikoan garatzen ari garen aurrerapen guztiez haratago.

Nola ez, banda zabala, Nafarroako Ubidea bezalako **azpiegiturak**, errepidetako hobekuntzak, besteak beste, gure komunitatea garatzeko eta modu kohesionatu batean egiteko gobernuaren helburuak izaten jarraituko dute.

Esan bezala, bizikidetzarik gabe ezinezkoak izango diren garapen eta aurrerapenak lirateke.

Horregatik, **bizikidetzarako plan estrategiko** bat garatuko dugu hainbat programatan sakontzeko, adibidez, Indarkeriari legezkotasuna kentzearen aldekoa, elkarrizketaren sustapena arazo politiko eta sozialen konponbide modura, adostasun sozialaren sustapena legez kontrako indarkeria gaitzesteko, iraganekoa eta egungoa, aniztasunarekiko hala nola gure hizkuntzekiko errespetua.

Eta nola ez, **berdintasuna gure bandera da eta izango da**. Are gehiago erakundeetan prestakuntzak dauden garai hauetan, Parlamentu honetan barne, genero indarkeria ukatzen dutenak, gobernatzen duten lekuan berdintasun politikak ezabatzen dituztenak, emakumeak bigarren mailako herritarrak izatea nahi dutenak.

Inoiz baino gehiago eta inoiz baino indar gehiagorekin, gobernu hau lanean arituko da berdintasuna, emakumeen eskubideak, ahalduntzea, lidergoa eta errespetua defendatze aldera.

Ez dugu mespretxu edo atzerapauso bakar bat onartuko. Eta legeak hala nola Zuzenbidezko Estatuak ematen dizkigun erremintekin gaindituko dugu arlo honetan atzera egiteko nolanhiko saiakera.

Horiek dira lehentasunak baina programa akordioak gobernuaren lanerako arlo guztiak barne hartzen ditu, eta jadanik lau urte hauetan zeharkatu dugun bide bat markatzen dute eta orain abiadura bizkorrago eta hobetzeko asmoz zeharkatzen jarraitu nahi dugu, denbora eta planifikazioa eskatzen duten baina halaber sarritan bide ezezagunetan barrena eramaten gaituzten egunerokotasuneko larrialdiak dakartzaten gai estrategikoei erantzuten arituz.

Hezkuntzak, zalantzarik gabe, zeregin erabakigarria betetzen du gizartean. Aukeren berdintasunerako zutabe bat da. Eta asko gara komunitate honetan helburu garrantzitsuak lortu ahal izan dugunak, gure aukera ekonomikoez haratago eskuratu dugun hezkuntza publiko bati esker. Hori da gure sistemaren indargunea. Eta zainduz, bikaintasunera eraman nahi genukeen ondare bat da.

Horregatik jarraituko dugu hezkuntzan, beketan inbertitzen, ikasleengana heldzeaz gain familien antolamendua hobetzen duten zerbitzuak hedatuz.

Komunitatea eratzen duen Landa Eskola defendatzen eta Haur Hezkuntzaren lehen zikloa orokortzen jarraituko dugu.

Lanbide Heziketa bultzatzen, lan-merkatuko ekoizpen eredu berriekin eta erronkekin egokitu dadin, baita LH Duala lideratzen ere.

Eta enplegarritasuna oso lotuta dago halaber hizkuntzen ezagutzarekin, Beraz, aukera emango diegu ikasleei derrigorrezko hezkuntza bukatzean, gutxienez hizkuntza komunitario batean behar adinako gaitasun linguistikoa izan dezaten.

Horrez gain, nola ez, eredu ezberdinetako eskaria estaltzen dela bermatzeko, eta bigarren hezkuntzako D ereduja jadanik lehen hezkuntzan baduten eta institutu batekin kontaktzen duten udalerrietan eskuragarri egoteko.

Eta NUPi dagokionez, eskaintza hobetzen eta eguneratzen jarraitzeaz gainera, Tuterako Campusaren aldeko apustuarekin jarraituko dugu.

Jaun-andreok.

Ganberak Lehendakaria izateko babesia ematen badit, herritarren konfiantza berresten duen eta bi gobernuko buru izango den lehenengo emakume

Lehendakaria izateko ohorea izango dut. Ez da nolana hiko erronka. Zeren atzetik posizio politikoaren mezu oso garbi bat dago. Emakumeen aldeko apustua egiten dugu, emakumeen lidergoaren aldekoa, ahalduntzearen, bistaratzearen, laburbilduz, berdintasunaren aldekoa.

Horregatik, plan estrategikoa inplementatzen eta zeharkako politikak bultzatzen jarraituko dugu, berdintasuna maila instituzional gorenera eramanez.

Bestalde, nola ez, genero indarkeriaren biktimei prebentzio eta arreta programak eta jarduketak sustatzen jarraitzeko asmoa dugu. Zere bai. Existitzen da. Eta bai. Erabakitasunez, eta emakume horien eskubideak defendatuz jokatuko dugu.

Hain zuzen, martxan jarriko dugun lehenengo jarduketetako bat sexu indarkerien Arreta Integraleko Zentroarena izango da. Nola ez, hezkuntza esparruan ko-hezkuntza ezartzen jarraituko dugu.

Eta arestian esan bezala, gobernu hau sexu eta genero aniztasuna erreibindikatu eta onartzen duten eskubide eta politikekin arituko da lanean.

Hurrengo gobernuaren lehentasunetako bat osasuna izango dela aipatu dut. Horregatik, 2024. urtea amaitu aurretik, osasunaren foru legearen proiektu bat aurkeztu nahi dugu. Bereziki lehen arreta, osasun mentala eta itxaron-zerrendak kudeatzeko estrategia bat nabarmenduz.

Horrez gain, azpiegituren sustapen eta garapenarekin jarraitzea, osasun garraioaren enpresa publiko bat inplementatzea eta aho-hortzen osasun zerbitzuen zorroa hedatzea ditugu helburu.

Gizarte politikak, eskubide sozialak, erreferente bat izaten jarraituko dute eta gizarte zerbitzuen foru legea eguneratu nahi dugu, gizarte bezala ditugun errealitate eta erronka berriekin egokitzeke.

Beste helburu bat, gizarte inklusiorako eskubidean aurrera egitea eta enplegu politika aktiboak sendotzea da.

Gainera, hirugarren sektorean lege batekin kontatzea eta haurtzaroko plan berri bat garatzea planteatzen dugu, lege berri batera heltzeko independentzia arloan baliabideen gaineko diagnosi bat egiteaz gainera. Baita zahartze aktibo eta osasuntsurako estrategia berria onartzea ere.

Gazteriaren arloan, enplegua hezkuntza etaparen amaierarako eskubide bat bihurtu nahi dugu. Enpleguaren kalitatearen alde lan egiten jarraitzea.

Gazteriaren foru lege berria bultzatzea eta ematen ditugun zerbitzuak hobetzea.

Halaber ekintzailtza eta etxebizitzaren eskuragarritasuna bultzatzen jarraitu nahi dugu.

Hain zuzen arlo honetan, sistema publikoan alokairuko etxebizitzak eskuragarri izateko lan egin nahi dugu.

Emanzipa programarekin aurrera jarraituko dugu eta etxebizitza hutsen mobilizazioa hedatu nahi dugu, etxebizitza sozialaren parkea hedatzeaz gainera.

Etxebizitza babestua bultzatu behar dugu, bai egoitza eremu berrietan eta bai jadanik existitzen diren haietan.

Bestalde, presiopean dauden eremuak ezarriko ditugu, Estatuko araudiari jarraiki alokairuaren prezioa mugatzeko. Etxebizitzan errehabilitazio eta berrikuntza soziala bultzatzen jarraituko dugu.

Sektoreari bere eraldaketan lagunduko diogu, eraikuntza industrializatzearen eta karbono aztarna murriztearen alde eginez.

Migrazio-politiken harira, pertsona migratzaileen harrera plana eta kulturen arteko bizikidetzaren estrategia sustatzen jarraituko dugu, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako foru lege berria garatzeaz gainera.

Eta kanpo ekintzan, Europar Batasuneko Espainiako lehendakaritzaren esparruan, berdintasun arloko ospakizun bat eta automobilgintzako eskualde europarren beste bat hartuko ditugu, funts europarrek bere eremu ezberdinetan eskaintzen dizkiguten aukerak ahalik eta gehien ustiatzearen aldeko apustua egiten jarraitzeaz gainera.

Jadanik Nafarroan inbertsioa bultzatzen ari diren funtsak dira, modu nabarmenagoan Next Generation izenekoak martxan jarri zirenetik. Baina oraindik ibilbidea geratzen da egiteko zeren datozen urtetan bistaratuko zaizkigu funts horien benetako hedapena eta inpaktua.

Baina agerikoa da zerbitzu publikoak hobetzeko eta inbertsio nahiz eraldaketa enpresariala bultzatzeko balio behar dutela. Unea orain da eta XXI. mendera

behin-betiko jauzia emateko eskura ditugun potentzialtasunak eta aukera historikoa ahalik eta gehien aprobetxatu behar ditugu.

Une eraldatzaile bat zeinetan gobernuak partaidetza aktibo bat izango duen. Ahalik eta lasterren martxan jarri nahi dugun berrindustrializazio plan horri digitalizazioa pymetara eta pertsona autonomoengana helarazteko esfortzua bezalako beste hainbat jarduketa eransten dizkiogu.

Oinarri teknologikoa duten eta garatzeko bidean dauden enpresa berritzaileen ekosistema bultzatzeko neurri berriak.

Bere garapena eta bere funtzioak bultzatzen jarraitzeko eremu fisiko baten Berrikuntza Digitalaren Poloa hornitu nahi dugu bere garapena eta bere funtzioak hala nola balio erantsi goreneko zerbitzuen prestazioa bultzatzen jarraitzeko.

Jadanik badugu espezializazio adimentsuaren estrategia bat, S4-a, eta esparru horretan bultzatu nahi dugu politika eta joera europarren behatoki bat.

Talentuaren plana martxan jarriko dugu. Jadanik talentua erakarri eta atxikitzeko gai den komunitate erakargarrienetako bat gara baina giza kapitala gure garapen eredurako funtsezkoa dela ulertzen dugu eta hori bultzatzen jarraituko dugu.

Enplegu autonomoak eta ekonomia sozialak ere arreta eta bultzada jasoko dute gobernu honen aldetik.

Bestalde, zientziari leku berezi bat eman nahi diogu, I+D+i erako inbertsioa hedatuz eta zaletasun zientifikoak sustatuz, halaber emakumeen artean. Eta nabarmenkiago bultzatuko dugu I+D enpresariala.

Esan bezala, industria gure motor ekonomikoetako bat da eta izan behar da, beraz, bere eraldaketa berde eta digitala bultzatzen jarraituko dugu; profilen bilaketan, hirugarren industria-plana garatuko dugu eta proiektu industrialen instalazioa sustatzen jarraituko dugu Nafarroako eremu guztietan, lurralde kohesioa eta aukeren berdintasuna bultzatze aldera.

Eta besteak beste, lurzoru industrialak edo foru intereseko proiektuaren irudia bezalako arloak lantzen dituen foru lege bat elaboratu nahi dugu.

Halaber eraldatzen ari den merkataritza babestuko dugu, foru legea garatzeaz gainera.

Eta turismoaren arloan, plan estrategiko bat garatuko dugu eta jasangarritasuna bultzatzen jarraituko dugu, Nafarroako eremu guztietan indartuz.

Eremu ezberdinetako jarduketak zeinekin gure asmoa den enplegua sortzea eta hura kalitatezkoa izatea.

Ildo horretatik, egungo enplegu-plana amaitu eta ebaluatu nahi dugu, hurrengo elaboratzeko, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren esparruan. Beharrezkotzat jotzen dugun elkarrizketarako eta akordiorako eremu bat da, bultzatzen jarraitu nahi dugun baliabide erabilgarri bat.

Prestakuntza, birkualifikazioa, lan-munduan txertatzeko baliabideak bultzatzen jarraituko dugu, bereziki zailtasun gehien dituzten kolektiboengana helarazteko enplegu politika aktibo batzuk garatuz.

Eta lan-arriskuen prebentzioko ordezkariaren irudia indartzeko asmoz.

Bestalde, laneko denbora murrizteko, telelana eta kontzilio ere duak barne, proiektu berritzaileen ekimenak bultzatzea proposatzen dugu.

Jaun-andreok.

Errepaso programatiko honetan esaten aritu naizen bezala eta frogatuta geratu da aurreko gobernuaren bitartez, trantsizio ekologikoa, erronka energetikoa eta jasangarritasuna axola zaizkigun eta gainera presazko jarduketa eskatzen duten gaiak dira.

Klima-aldaketak, ukatzen duenik badago ere, eta berdeagoak eta kutsadura gutxien eragiten dutenak eredu energetiko eta produktiboak, administrazio guztioi ausardiaz, erabakigarritasunez eta arintasunez jardutera interpelatzen eta behartzen gaituzte.

Jadanik klima-aldaketaren eta trantsizio energetikoaren foru lege bat daukagu eta urrats bat gehiago eman nahi dugu ganbera honetara igorritz legearen irizpide horiekin koherentea litzatekeen ingurumen fiskalitatearen lege bat.

Administrazioen kontratazio publiko ekologikorako plan bat onartuko dugu, aldaketa horien abangoardian jarri behar dugulako.

Aurrekontuen proiektuetan ikuspegi klimatiko bat erantsiko dugu eta Navarra Green trantsizio ekologikoaren estrategian definitutako energia berde berria sustatuko dugu.

Energia berriztagarrien proiektuak bultzatzen jarraituko dugu. Legegintzaldi honetan jadanik bikoiztu dugu instalatutako potentzia baina aurrerapausoak

ematen jarraitu behar dugu, halaber autokontsumoa, hurbileko sorkuntza eta komunitate energetikoak bezalako gaietan.

Eta nola ez, horretan ere murgilduta gaudenez, mugikortasun jasangarria bultzatuko dugu: ibilgailu elektrikoak eskuratzeko laguntza, bizikletaren eta bizikleta erreien sustapena edo autobusa eta trena bezalako zerbitzuekin lotutako birkarga-guneen hedapena eta zabalkundea eginez eta tarifak murriztuz.

Halaber ekonomia zirkularra garatzeko agenda bat daukagu eta kolaborazio publiko pribatutik lan egingo dugu, enpresen ibilbidea noranzko horretan bideratzeko. Baita ekonomia zirkularraren hub bat sortzeko ere.

Nola ez, ingurune naturala kudeatzeko jarduketak bultzatuko ditugu eta, beste jardueren artean, ondare naturalaren eta bioaniztasunaren lege proiektu bat prestatuko dugu.

Landa garapenaren arloan, 2027ra arte helduko den programa garatuko dugu, sektorean eta bereziki nekazaritzako elikagaien arloan, I+D+i plana bultzatzen jarraituko dugu; nekazaritza ekologikoaren plan estrategiko bat eta abeltzaintza estentsiboaren planerako neurriak bultzatuko ditugu. Eta ekoizle txikientzako toki produkturako logistika eta banaketarako zentro bat jarriko dugu martxan.

Bestalde, ureztaketan foru plan bat bultzatuko dugu, halaber ureztatzetan energia berriztagarrien ezarpena eta modernizazioa sustatuz.

Ekintza hauek, zalantzarik gabe, niretzat hain baliotsua den lurralde kohesioa babesten dute.

Baina beste politika batzuek ere babesten dute, esaterako jadanik martxan jarri dugun tokiko finantzaketaren hobekuntza eta despopulazioaren aurkako borroka estrategia, zeinen harira despopulazioaren aurkako foru lege bat proposatuko dugun.

Gainera, garraioaren plan integrala garatu, Nafarbide enpresa publikoaren prestaketarekin jarraitu, banda zabalaren ezarpenarekin jarraitu eta azpiegituren eta oinarrizko ekipamenduen arloko tokiko beharrak aztertzea ditugu helburu.

Eta azpiegiturak hizpide baditugu, nola ez, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea hurrengo gobernuaren mugarri nagusietako bat izango da, azkenean Erriberak kalitatezko urarekin konta dezan. Joan den legegintzaldian urrats erraldoi bat eman dugu lehenengo fasearekin eta bigarrenerako finkatutako oinarriekin.

Baina beste mugarri batzuk ere izango ditugu, esaterako Belate eta Almandozeko tunelak bitan banatzea, N121A-ko lanak amaitzea, errepideetako planaren implementazioa, garraiorako txartel bakarra. Eta Espainiako Gobernuarekin aurrera egin nahi dugu A15-ari bultzada ematerakoan, honek Madrilekin konekta gaitzan autobidearekin eta Noaingo nodo logistikoa.

Egonkortasuna, nahikotasuna eta aurrerakoitasuna bermatzen duen politika ekonomiko eta fiskal bat eskatzen duten jarduketak dira. Kudeaketan arduraz jokatzeko duen komunitate bat gara, joan den legegintzaldian frogatu dugun

bezala, laguntzak eta inbertsioak hedatu arazteko gaitasuna dugu, zorrak kitatzen ditugun bitartean. Ondorioz, kaudimenaren, konfiantzaren eta kudeaketarako jardunbide zuzenaren eredu bat gara. Oinarrizko zerbait inbertsioak eta talentua erakartzeko, eta bizi-kalitate handieneko komunitatea izaten jarraitzeko, liderra izanik garapen jasagarria bezalako adierazletan, BPGko industriaren pisuan.

Gure baliabide fiskalekin, familiak, inbertsio enpresariala babestuko ditugu eta tasa minimo bat finkatuko dugu sozietateen zergan.

Iruzur fiskalaren aurka borrokan jarraituko dugu eta, nola ez, gure Hitzarmen Ekonomikoa eguneratzen, Estatuarekin oraindaino izaten aritu garen eta hurrengo Espainiako Gobernuarekin elkarrekiko errespetua eta leialtasuna lagun, mantentzea nahi genukeen harreman horretatik.

Funtzio Publikoari dagokionez, Administrazio Publikoen zerbitzura jarritako pertsonalaren estatutu berri bat idazteko adostasun batera iritsi nahi dugu.

Barnean, Foru Poliziaren plan estrategiko berri bat prestatuko dugu, joan den uztailaren 1etik historikoki erreibindikatutako trafikoaren eta bide-segurtasunaren konpetentzia gure gain hartu izanaren testuinguruan. Ildo horretatik, konpetentzia horri dagozkion jarduketa denak abian jartzekotan gabilta.

Eta oraindik inplementatzeke dauden gaietan polizien legea garatuko dugu.

Suhiltzaileen zerbitzurako zuzendaritza plan berri bat onartuko dugu.

Segurtasuna eta larrialdiak koordinatzeko zentroan aurrerapausoak emango ditugu.

Justizian, justizia zaharberritzeko legea, bitartekaritza eta zaharberritzeko praktikak garatuko ditugu.

Eta gardentasunaren harira, gobernu irekiaren lehenengo plana amaituko dugu eta bigarrena elaboratuko dugu, Gardentasunaren Kontseilua eguneratuko dugu eta XXI. mendearekin egokitutako politika publikoen ebaluaketa bat egingo dugu.

Kultura arloan, kulturako lanbideen legea bultzatu eta bigarren plan estrategikoa elaboratu nahi dugu, eskubide kulturalen legea garatzeaz gainera. Eta kultura Nafarroa osora eramaten jarraitu nahi dugu, emaitza oso onak izaten ari den kohesio baliabide modura.

Eta kirolean hala nola sektorea modernizatzea ahalbidetzen duen araudian, osasunaren zaintzarekin zerikusia duen guztia bultzatzen jarraituko dugu.

Oinarrizko kirola, kirol femeninoa, mezenasgoa edo azpiegituren plana eta kiroleko lanbideen legea ere gure jarduketan katalogoan egongo dira.

Politika linguistikoaren harira, gure lege esparruan akordio sozial eta politiko zabal bat bultzatu nahi dugu euskeraren inguruan, errealitate soziolinguistikoa eta boluntarismoa abiapuntutzat hartuta eta hizkuntza eztabaida alderdikidearekin nahasi gabe.

Bigarren plan estrategikoa onartuko dugu eta euskeraren presentzia sustatzen jarraituko dugu hezkuntzan, hedabideetan, Euskarabidearen jarduera mantentzeaz gainera.

Kontaketa honetan zehar, bizikidetzaren izaten ari da hari nagusia, gure bizitzetan eta politika publikoetan hala behar duelakoan nagoelako.

Horregatik, eta programan bereziki horri buruz ari den kapituluan, agerian jartzen dugu, beste behin ere, ETAren terrorismoaren eta beste nolanhiko erakunde terroristaren biktimenganako gure babesa eta elkartasuna.

Elkarteekin eta hezkuntzatik lanean jarraituko dugu giza eskubideak, memoria partekatu bat eta iraganarekiko bestelakoa izango den kontakizun bat sustatzeko.

Lege memorialistak garatuko ditugu eta Bizikidetzaren Plan Estrategiarekin jarraituko dugu, horrez gain egungo terrorismoaren biktimen legea aldatzea bultzatuz, eguneratu eta biktimen egungo arazoekiko egokitu dadin.

Motibazio politikoa duten ekintzen bidez, biktimen aintzatespen eta ordainerako legea garatuko dugu.

Memoriarekin lotutako hezkuntza curriculo bat diseinatuko dugu.

Eta jadanik abian jarritako lanarekin jarraituko dugu San Kristobal Gotorlekua Memoria Historikoaren lekua bihurtzeko.

Arlo programatiko nagusien errebaso labur hau amaitzen dut hizpide izanik gure esentzia. Foru komunitate bezala garena. Abiapuntutzat hartuz konpromiso

garden bat LORAFNaren baitan dauden gure ikurrekin, gure auto-gobernuarekin eta gure konpetentzien erabateko garapenarekin, hura zalantzan jartzen duten eta are kentzeko mehatxua egiten duten alderdiak aipatuz. Hori oso larria da demokrazia mailan. Frankismoak eginiko hartara itzuli nahi izatea.

Legeak hala nola Konstituzioak foru komunitate bezala onartzen gaitu. Beraz, abertzaleak eta horren espainiarrak auto-aldarrikatzen diren haiek, legeak errespetatzen hasi beharko lirateke. Zeren Nafarroa maitatzea eta Espainia maitatzea ez datza eskumuturrekoak jantzi eta sare sozialetan hitzaldi sutsuak egitean. Legea eratu, errespetatu eta betetzean datza, garena eta bereziki herritarrek euren botoarekin esaten duena ulertuz. Hori bai dela ukazina eta egiten dugun ariketa demokratiko eta aske nagusia.

Gobernu hau adiskidea eta lankidea izango da nafartarrentzat, gure nortasunaren eta esentziaren defendatzailea.

Defentsa zorrotz bat egingo dugu, garbi gera dadila, Zuzenbidezko Estatuak ematen dizkigun baliabide guztiekin, horiek erabiltzea ezinbestekoa balitz. Espero dut larritasun instituzional maila horretako gatazkei aurre egin behar ez izatea. Baina alderdi edo gobernuren batek egingo balu, Nafarroa defendatuko genuke buru-belarri.

Espero dut AAEE mugakideekiko, Espainiako Gobernuarekiko, udalekiko harremanak leialtasunean, errespetuan eta lankidetzan oinarritzea. Halakoak izan dira bere gehiengoan joan den legegintzaldian eta espero dut, hainbat gobernutan gertatzen ari diren aldaketek, hainbat kasutan erradikalak, funtsezko printzipio instituzional horri ez eragitea.

Berriz diot. Gobernu honek gure esentzia defendatuko du, araudi esparrutik lan eginez. Horregatik, egokitzat jotzen dugu LORAFNA esparru konstituzionalaren baitan eguneratzeko txosten parlamentario bat prestatzea.

Jaun-andreok.

Akordio hau gardena eta zintzoa da, zeren herritarrek egin nahi duguna eta aldi berean adostu ezin izan dugun hura ezagutzea nahi dugu. Nire ustean horrela herritarrek politikan konfiatzeko bidea ematen dugu.

Gainera, akordio honek bere segimendurako eta lanerako bere mekanismoak izango ditu izenpetu duten alderdien aldetik, eta lehentasun nahiz arlo horietan oinarrituz eraikiko dugu gobernuaren egitura.

Jaun-andreok. Amaitzeko.

Nahi nuke, Ganberak konfiantza ematen badit, nafartar guztien lehendakaria izaten jarraitzea. Gehiengo sozialaren gobernu bateko buru izatea, zentraltasun politikoan. Hitz egiteko eta adosteko, entzuteko, artatzeko eta ulertzeko gai dena. Gobernu egonkor bat. Gizarte osoaren esanetara, zeinek politika publikoen ikuspegi aurrerakoi batetik, jadanik martxan dauden eta hurrengo urteetan implementatu behar diren eraldaketak babestuko dituen.

Kudeaketan eraginkorra den gobernu bat, Espainian lidergo postuetan kokatzen gaituzten adierazle ekonomiko eta sozial horiek hobetuko dituen, baita Europako puntako eskualdeen artean ere, berrikuntza edo garapen jasagarria bezalako arloetan.

Gobernu bat zeinek, leialtasuna eta lana lagun, Espainiako Gobernuarekin eta komunitatetako beste hainbat gobernurekin koordinatuta jarraituko duen, eta nola ez, udal gobernuarekin, gehiago eta hobeto egiteko. Elkarren beharra dugu, kolaborazioa eta lankidetzaren behar ditugu, esfortzuak bateratuz Nafarroako Guztion Onerako.

Inoiz baino gehiago, Europa indartsu bat bultzatu nahi dugu zeren, lehenengo pandemiarekin eta orain Ukrainako gerrarekin lortu ditugun ikaskuntzen artean legoke, ez dagoela beste biderik Europa lankidetzarako eta kohesiorako proiektua bihurtzea baino, 2030 Agendak esaten duen bezala, inor atzean utziko ez duena.

Hautagaitza honek Ganberan aurrera egiten badu, izenpetu dugun akordioarekin konprometitzen naiz. Herritarrek hautestontzietan adierazitako borondatearekin eta nola ez, komunitate honetako erakunde ororekiko errespetuarekin, zeini aurrerantzean ere indarra eta legezatasuna ematen jarraitu behar dugun, hain zuzen errespetuaren eta zintzotasun politikoaren eskutik.

Agerikoa da politikaren defendatzaile irmoa naizela. Zerbitzu publiko bezala ulertutako politikarena, politika erabilgarriarena, ekintzen politikarena, baina halaber zintzoa izateagatik konfiantza sorrarazten duen politikarena. Lau urte

hauetan asko ikasi dut eta hala jarraitu nahi dut komunitate honetako buru izateak suposatzen duen ohoretik eta erantzukizunetik. Betiere hobetzeko nahia duenaren apaltasunarekin eta proiektu hau errealitate bihurtzea ahalbidetzen dutenei nire esker ona azalduz.

Gobernuak taldeak dira. Zeinetan talentua, gaitasuna, kudeaketa, ikaskuntza, logaltzeak, une zailak, poztasunak, ezjakintasunak, lorpenak, akatsak, etab. dauden. Pertsonekin eratutako taldeak, eta pertsonak garenez, ez gara perfektuak. Gure jarduna eskatzen duen gizarte bati gure onenak emateko baino ez gaude.

Horregatik eta jakinik politikan, bizitzan bezala ezer ez dela perfektua, konprometitzen naiz lan egitera, nire onenak ematera, talderik onena prestatzera eta beti nafartarren esanetara egotera.

Gizarte osoarekin hitz egitera, elkartzen gaituen eta gure ideietatik zein gure sentimenduetatik bateratzen gaituen proiektu komun honen alde elkarrekin ibiltzera.

Bide honetan, aurreko legegintzaldian bezala, kolaboratzeko prest dagoen horrenbeste jende bikain topatzea espero dut. Osatzen dugun gizarte plural honek Nafarroan are gehiago sinestera eraman nau. Zeren elkar ulertzeak ideologiak gainditzen ditu atzetik interes gorenago bat dagoenean, alegia Nafarroari onena opatzea. Horregatik, eskerrik asko aurreko gobernuarekin egon zaretenoi eta kolaboratu duzuenoi eta eskerrik asko alde zuretik, barruan eta

kanpoan, baina betiere horrenbeste maite dugun eta betirako bihotzean eramango dugun komunitate honen alde arraunean arituko zaretenoi.

Antonio Machadoren hitzak oroitzuz, politikan bela haizearen alde jartzen duena soilik izaten da garaile. Inoiz ez bela jarritako lekuan haizea alde egotea nahi duena.

Eskerrik asko